



**LIZARTZAKO**  
**UDALA**  
**GIPUZKOA**

**UDALAREN OSOKO BILKURA BEREZIAREN AKTA**

**BERTARATUAK**

**alkate-udal burua**

BEGOÑA BALERDI URDAMPILLETA

**zinegotziak**

OIER MINTEGI ZEBERIO

LOURDES SARASOLA ETXEBERRIA

JUAN JOSE GOGORZA BALERDI

FRANCISCA ZUBELDIA LULUAGA

JOSEFINA ALTUNA AZURMENDI

JOSE MARIA SARASOLA ETXEBERRIA

**IDAZKARIA**

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2014ko ekainaren 30ean, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Begoña Balerdi Urdampilleta izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

**GAIAK**

**1.- LIZARTZAKO AXURDARIO MENDIAREN OINETAN DAGOEN GI-2135 FORU ERREPIDEAREN ALBOKO HARROBIAREN ONTZIA INDUSTRIKO LURREZ MODU KONTROLATUAN BETETZEA EMAKIDAREN ADJUDIKAZIOA**

Kontuan izanik, 2014ko otsailaren 24ko ebazpenaren bidez, adierazitako kontrataziorako espedientea hastea erabaki zela, proposatutako kontratazioaren behara eta egokitasuna adieraziz.

Kontuan izanik, Emakidaren ezaugarriak kontuan hartuta, publizitaterik gabeko prozedura da egokientzat.

Kontuan izanik, 2014ko otsailaren 27an aplikatu behar den legeriari, jarraitu behar den prozedurari, eta kontratua onartzeko eta esleitzeko organo eskudunari buruzko idazkaritzaren txosten-proposamena igorri zen.

Kontuan izanik, 2014ko otsailaren 26an kontratuaren esleipena arautzeko administrazio-klausula berezien eta baldintza teknikoen agiria idatzi ziren, eta espedienteari erantsi.

Kontuan izanik, 2014ko martxoaren 10eko Udal Batzarraren erabakiaren bidez espedientea eta LIZARTZAKO AXURDARIO MENDIAREN OINETAN DAGOEN GI-2135 FORU ERREPIDEAREN ALBOKO HARROBIAREN ONTZIA INDUSTRIKO LURREZ MODU KONTROLATUAN BETETZEA EMAKIDA publizitaterik gabeko



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

prozedura negoziatuaren bidez esleitzeko administrazio-klausulen agiriak onartu zirela.

Kontuan izanik, 2014ko martxoaren 21ean, eskaintzak eskatu zitzaizkien enpresa hauei:

- *EXCAVACIONES ALVAREZ. S.L.*
- *TXIMISTARRI, S.L.*
- *EXCAVACIONES PERU S.L.*
- *SASOI S.L.*
- *MARIEZCURRENA S.L.*

Kontuan izanik, 2014ko apirilaren 11an espedientean idatziz jasota dauden eskaintzak egiaztatu egin zirela.

Kontuan izanik, 2014ko apirilaren 14an kontratazio-mahaia (eskaintzak baloratzeko eskumena duen organoa) eratu zen, eta emakida, EXCAVACIONES Y TRANSPORTES CESAR ALVAREZ S.L.ri esleitzea proposatu zuela.

Eskaera horri atxikitako dokumentuak eta Idazkaritzaren txostena aztertu ondoren, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 135.4. artikuluan eta Bigarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoarekin bat,

#### **HAU ERABAKITZEN DA**

**LEHENENGOA.** LIZARTZAKO AXURDARIO MENDIAREN OINETAN DAGOEN GI-2135 FORU ERREPIDEAREN ALBOKO HARROBIAREN ONTZIA INDUSTEKO LURREZ MODU KONTROLATUAN BETETZEA EMAKIDA kontratuaren behin-behineko esleipena, publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidezkoa, behin betiko esleipen bihurtzea. 2014ko ekainaren 16ko ebazpenaren bidez onartu zen esleipen hori.

**BIGARRENA.** EXCAVACIONES Y TRANSPORTES CESAR ALVAREZ S.L., kontratuaren esleipendunari, ebazpen honen berri ematea eta deitzea kontratua sinatzeko. Kontratua Lizartzako Udaletxean, 2014ko uztailaren 4an, eguerdiko 12:00tan sinatuko da.

**2.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO KULTURA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA ETA LIZARTZAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA**



**LIZARTZAKO**

**UDALA**

**GIPUZKOA**

Idazkaritzak 2014ko ekainaren 23an egindako txostena ikusi da, udal honek eta Lizartzako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak elkarlanean aritzeko emateko lankidetzarako hitzarmen-administratiboa onartzeko aplikatu daitezkeen legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruzkoa.

Lankidetzarako hitzarmenaren negoziatutako testua 2014ko ekainaren 13an jaso da udalean.

Legeak araututako izapideak egin ondoren, eta 2014ko ekainaren 23ko idazkaritzaren txostena, hau da, hitzarmena zuzenbidearekin bat datorrela egiaztatu eta, beraz, ebazpen-proposamena egiten duen txostena ikusi ondoren, udalbatzaren osoko bilkurari proposatzen zaio, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 47.2.h) artikuluan xedatutakoaren arabera, gehiengo osoz erabaki hau hartzea:

## **ERABAKIA**

**LEHENA.** Lizartzako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiako Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak elkarlanean aritzeko emateko lankidetzarako administrazio-hitzarmenaren testua onartzea, txostenean zehazten diren baldintzetan:

## **AZALPENAK**

- I.- Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapeneko jarduera arloan, eskumenak banatuta daude Euskal Autonomia Erkidegoko botere publikoen artean. Beraz, behar-beharrezkoa da horien guztien artean koordinatzen saiatzea.
- II.- Gipuzkoako Foru Aldundiko nahiz udaletako politika publikoen eremuan, indartzen joan dira, azken 25 ureotan, hainbat esku-hartze eta zerbitzu, bilatzen dutenak osagarriak izatea haur, nerabe eta gazteei politika eta sistema orokorretatik eskaintzen zaien arretarekin, eta arreta fokalizatzen dutenak haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan, espezifikoki, saiatzen baitira pertsonen modu espezifikoko batean laguntzen bizitzako aldi horietan.
- III.- Gizarte konplezu eta aldakor honetan, familiako eta komunitateko loturak gero eta hauskorragoak dira; norberaren biografia eraikitzeke aukerak nahiz gizarte bazterketarako arriskuak biderkatzen ari dira; eta aniztasun aberasgarriko eta gizarte gatazkako ardatz berriak sortzen ari dira. Halako gizarte batean, ez dirudi zalantza hnadirik dagoenik administrazio publikoek hurbiletik eragiteko lanabesak



**LIZARTZAKO**

**U D A L A**

**GIPUZKOA**

prestatu behar dituztela, hau, nerabe eta gazteen esku jartzeko, abiapuntutzat harturik gako hauek: laguntza, aurrea hartzea, dinamizazioa, ikaskuntza, parte hartzea, loturak eraikitzea, eskubide berdintasuna, eta, hitz batean, sustapena.

IV.- Gipuzkoako udalek eta Foru Aldundiak elkarren beharra izan dute haur eta gazteen sustapen arloan dituzten eskumenak erabiltzerakoan, eta elkarri lagundu izan diote. Hala, hainbat dinamika sortu dituzte, eta horiek lortu duten heldutasun puntuari esker, egin daiteke, eta komeni da haiek Haur eta Gazteen Sustapen Sistema gisa formalizatzea.

V.- Haur eta Gazteen Sustapen Sistema da multzo artikulatu eta eognkor bat, erantzukizun publikoko eta gizarte partaidetzako egiturez eta jarduketez osatua, eta Gipuzkoako udal administrazioek eta Foru Aldundaik lankidetzaz hitzarmen baten bitartez eratua.

VI.- Ez dago hierarkia aginterik Sistemako kideen artean, ez eta Sistemari inposatutako betebeharrak hertsatzaile ere, baizik eta dinamika bat lankidetzaz aritzeko eta elkarri laguntzeko, eta eginkizunak eta erantzukizunak banatzeko, Kontua da etorkizun partekatua bat eskaintzea, eta etorkizun horretara hurbiltzen joatzea, kasu bakoitzean arrazoizkoa den eritmoan.

VII.- Orain arte azaldutakoaren barruan kokatzen da lankidetzaz hitzarmen hau, hemen bildu diren bi erakundearen artekoa, klausula hauen arabera arautuko dena,

### **BALDINTZAK**

**LEHENA.-** Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak eta Lizartzako Udalak elkarlanean aritzea erabaki dute 2014. urtean zehar, udal horretan Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema garatzeko.

**BIGARRENA.-** Hitzarmen honen xedeari dagokionez, bi alderdiek ondorengo betebeharrak hartzen dituzte bere gain:

#### **Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuak:**

- Lankidetzaz egitasmoa aurrera eramateko Gazteria Zuzendaritza Nagusiko aholkularitza zerbitzua eskainiko du.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

- 1880,00 euroko diru-laguntza emango du Udalak Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema ezartzeko, 1.0220.200.461.01.01.2014 zk. aurrekontuko sailaren kargura.

**Lizartzako Udalak:**

- Gipuzkoako herri txikietan Haur eta Gazteen Sustapenerako Sistema nola garatu daitekeen aztertzeko sortuko den lan taldean parte hartuko du.
- Diru laguntza emateko arrazoia oinarritzen duten haur eta gazteentzako jarduerak burutuko ditu haurren eta gazteen sustapenerako Sistema sendotzeko.
- "Gaztesare" intranetean herriari buruzko datuak sartu eta eguneratuak edukitzeaz arduratuko da.
- Haur, nerabe eta gazteen alorreko diru laguntzak emateko oinarri erregulatzaileretan, 2014ko martxoaren 11ko Diputatuen Kontseiluak onartutakoetan, aurreikusitako obligazioak betetzea.

**HIRUGARRENA.-** Foru Aldundiak txanda bakarrean ordainduko du dagokion diru laguntza, erakundeak hitzarmen honen xede diren jardueren gastuak justifikatzeko beharrezko dokumentazioa aurkeztu ondoren.

**LAUGARRENA.-** Jarraipen batzorde bat eratu daiteke udaleko hiru ordezkari eta Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritza Nagusiko beste hiruk osatuta.

**BOSGARRENA.-** Hitzarmen honek aurreikusten ez duen guztian, 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historiko diru laguntzenak, haur, nerabe eta gazteen alorreko diru laguntzak emateko oinarri erregulatzailerak, 2014ko martxoaren 11ko Diputatuen Kontseiluak onartutakoek, eta diru laguntzen alorrean indarrean dagoen gainerako araudiak ezarritakoari egokituko zaio diru laguntza.

**BIGARRENA.** Alkateak, udalbatza honetako udalburu den aldetik eta udal honen izenean, aipatutako lankidetzarako hitzarmena eta hori gauzatzeko behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko ahalmena izatea, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Toki-araubidearen oinarriak arautzekoak, 21.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.



**LIZARTZAKO**  
**U D A L A**  
**GIPUZKOA**

**HIRUGARRENA:** Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentuari erabaki honen berri ematea, horretarako dagokion ziurtagiria eginez, eta halaber, hitzarmenaren bi ale bidaltzea, alkate-udalburuak sinatuta.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko 19:30etan, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK

Izpta: Begoña Balerdi Urdampilleta

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK

Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia